

KOMUNIKAZIO KANALAK

Telefonia: Bezeroek enpresara dei dezakete produktuei buruzko galderak egiteko, eskaerak egiteko edo aholkularitza pertsonalizatua eskatzeko.

Posta elektronikoa: Posta elektronikoaren bidez, bezeroek kontsultak bidal ditzakete, kezkak adierazi edo ileordeei eta haien zainketei buruzko informazio gehigarria eskatu.

Sare sozialak: Instagram, Facebook eta TikTok perfilak sortuko dira, hauek bezalako plataformak ezagunak dira bezeroekin elkarreragiteko. Bide hauetatik galderak erantzun daitezke iruzkin, mezu zuzen edo interakzioa sustatzeko egitengo diren argitalpenetan.

@ametsinileordeak   

Zuzeneko txata (live): Txat zerbitzua eskainiko dugu lineako dendan, non bezeroek beren galderen berehalako erantzunak jaso ditzakete.

Denda fisikora etorrita ere, edozein gauza galdetu daiteke eta zuzeneko arreta eskainiko da.

SALMENTA ETA BANAKETA BIDEAK

Salmenta bideak

Lineako dendak: Ondo diseinatutako lineako dendak bat sortuko dugu, non bezeroek ileordeak zuzenean ikusi, aukeratu eta erosi ahal izango dituzte. Deskribapen zehatzak, kalitate handiko argazkiak eta beste bezero batzuen aipamenak sartuko dira.

Sare sozialak: Instagram eta Facebook bezalako plataformetan ere dendak integratuen bidez zuzenean erosteko aukera izango dute.

Dendak: Denda fisiko bat irekitzea, non bezeroek ileordeak probatu ahal izango dituzten erosi aurretik. Gure dendak Moyuan dago
(<https://www.idealista.com/inmueble/104143318/>)

Pop-up dendak: Ekitaldi edo azoketan aldi baterako dendak antolatzea, publiko espezifikoak erakartzeko, eta behar izanaren sentzazioa sortzeko. (Bilbon gabonetako azoketan)

Influencer-ak eta marka-enbaxadoreak: Edertasunaren munduko influencer-ekin lankidetzan arituko gara, zure ileordeak susta ditzaten, publiko zabalago batengana iristeko modu eraginkorra izan daiteke.
Gure enbaxadorea: @dimesolocesar

BANAKETA BIDEAK

Banaketa gu arduratuko gara, gure enpresak izango dituen garraioetaz baliatuz. Erosketak egin eta 72 ordutan gehienez erosleek beraiek aukeratzen duten helbidean eskaria jasoko dute.